

# **IRURAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

**V. plangintzaldia  
2013-2017**





## AURKIBIDEA

1.- Euskararen erabilera normalizatzeko planaren testuingurua.....	5. or.
2.- Metodologia eta prozedura.....	7. or.
3.- Diagnostikoa.....	9. or.
4.- Udalaren puntuazioa eta sailkapena.....	10. or.
5.- Erabilera planaren eraginpeko langileak.....	12. or.
6.- Erabilera planaren helburu estrategikoak.....	13. or.
7.- V. plangintzaldiko helburu orokorrak.....	15.or.
8.- Helburuei begirako neurriak betetzeko azpiegitura.....	24. or.

## ERANSKINAK


1. eranskina. Diagnostikoaren aztergaiak
2. eranskina. Lanpostuen zerrenda



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**





**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

## **1.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZAKO PLANAREN TESTUINGURUA**

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomi Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. titulua** eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazioa prozesuaren oinarri ere badira.

Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.

Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, Udala partaide den **Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak** (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan, eta lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko **86/1997 Dekretuak**, apirilaren 15ekoak (dekretuak indarrean jarraitzen du eta V. Plangintzaldiak 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte iraungo du), elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntz gaitasuna zuten langileen kopuruan. Bigarren plangintzalditik aurrera, administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra ageri da.

Horrela, 86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

**Irurako Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana**  
V. plangintzaldia (2013-2017)



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

Euskara planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Irurako Udalak bere lehenengo plana 2001eko irailaren 19an onartu zuen. Plan hori martxan jarri eta lortutako emaitzak ikusteko 2006an balorazioa egin zen. Balorazio horretan, orduko egoera zein zen adierazi eta 2007ko abenduaren 31 arteko aurrera begirako neurriak proposatu ziren.

IV. plangintzaldiko planari dagokionez, Udalak plangintzaldi horretarako erabilera plana 2008ko abenduan onartu zuen.

IV. plangintzaldia amaituta, Udalak euskararen erabilera plana berritzeari ekin dio eta, beraz, esku artean dugun agiria V. plangintzaldirako onartu beharreko plana da. Bertan, gaur egun Irurako Udalak, UEMAk bere baitan dauden udaletarako onartuta dituen hizkuntz irizpideak kontuan harturik, euskararen erabileraren egoeraren berri ematen da eta, halaber, plangintzaldi honen amaierarako lortu beharreko helburu orokorrak zehaztu.

## **2.- METODOLOGIA ETA PROZEDURA**

V. plangintzaldian Irurako Udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehazteko, ezinbestekoa da egungo egoera zein den jakitea; hau da, Udalaren hizkuntz erabileraren diagnostikoa egitea.

Diagnostikoa egiteko, administrazio buruekin egindako galdetegiaren erantzunetan oinarritu gara. Hasiera honetan ez da laginketarik egin. Laginketak plan estrategiko honen jarraipena izango diren urtez urteko kudeaketa planetan txertatuko ditugu.

Galdetegiaren datuak aztertu ondoren, Udala UEMAko kide denez, Udalaren egoera UEMAko Zuzendaritza batzordeak onartutako hizkuntz irizpideekin alderatu dugu. Alderatze horretatik ateratako emaitzarekin Udala lau multzoetatik batean sailkatu dugu. Multzoak, egoera kaskarrenetik hobereenera, hauek dira: abian, magalean, gora bidean eta tontorrean.


Azkenik, Udalaren egoera horretatik abiatuta, plangintzaldi amaierarako lortu nahi diren helburu estrategikoak eta aurrerantzean Udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehaztu ditugu. Horrekin bat, erabilera planaren barruan sartzen diren udal langileak zein diren zehaztu dugu.

Testua osatuta, erabilera plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali dugu, osoko bilkurara eraman aurretik behar duen aldeko txostena jaso dezan.


Erabilera plana osoko bilkurak onartuko du eta osoko bilkura horretan bertan, plan honen jarraipenaren ardura izango duen Jarraipen batzordea eratu eta batzordeko kideak izendatuko ditu Udalak.

## ERABILERA PLAN BERRIA ONARTZEKO IBILBIDEA

### 1.- Datuak biltzea



### 2.- Plana onartzeko prozedura







### 3.- DIAGNOSTIKOA

Udalaren euskararen erabileraren egungo egoera aztertzeko, Irurako Udala bere osotasunean hartu dugu kontuan.

Galdetegi bidez jasotako datuak udal langileek aitortuak dira, oro har. Azken batean, udal langileek esandakoa jaso dugu, eta ez dugu laginik jaso.

Galdetegietan, alor hauei buruzko informazioa bildu dugu:

1. Irudi korporatiboa
2. Barne harremanak
3. Kanpo harremanak
4. Baliabideak

Alor bakoitzean ze aztergai izan ditugun diagnostikoaren aztergaietan jaso dugu (**Ikus 1. eraskina. Diagnostikoaren aztergaiak**).



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

#### **4.- UDALAREN PUNTUAZIOA ETA SAILKAPENA**

Udalak puntuazio jakin bat du, UEMAREN hizkuntz irizpideen betetze mailaren arabera; hau da, zenbat eta hobeto/gehiago bete UEMAREN irizpidea, orduan eta puntuazio hobe izango du. Alor bakoitzean puntuazio jakin bat edukiko du: irudi korporatiboan, barne harremanetan, kanpo harremanetan eta baliabideetan. Lau alorretako puntuazioen batez bestekoarekin, Udalaren puntuazioa atera dugu.

Hori oinarritzat hartuta, saila lau maila hauetako batean kokatu dugu:

- **Tontorrean:** oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz funtzionatzen duten udalak.
- **Gora bidean:** nagusiki euskaraz edo/eta ele biz eta euskarari lehentasuna emanda funtzionatzen duten udalak.
- **Magalean:** nagusiki ele biz modu orekatuan funtzionatu arren, zeregin batzuetan gaztelania hutsean ere funtzionatzen duten udalak.
- **Abian:** ele biz funtzionatzera bidean oraindik urrats handia egiteko duten udalak. Udalotan, gaztelaniak presentzia nabarmena du.

Hartara, hurrengo orrialdean, Udalak alor bakoitzean zenbateko puntuazioa lortu duen ageri da.

Puntuazio horren atzean, sailaren diagnostikoa jasotzen duen txostena dago. Txosten horrek adierazten du zer-nolako erabilera ematen dioten euskarari sail bakoitzean eta UEMAREN hizkuntz irizpideak zenbateraino betetzen dituzten. Txosten horrek barne izaera du, eta ez da erabilera planaren zati.



**UDALA**

**IRURA**

**PUNTUAZIO OROKORRA**

**6,79**

**ALORREZ ALORREKO PUNTUAZIOA**

**Irudi korporatiboa**

**8,02**

**Barne harremanak**

**8,39**

**Kanpo harremanak**

**5,95**

**Baliabideak**

**4,81**

ABIAN maila/fasea	0-3,9
MAGALEAN maila/fasea	4-5,9
GORA BIDEAN maila/fasea	6-7,9
TONTORREAN maila/fasea	8-10,0

Horrenbestez, Irurako Udalean egin dugun diagnosiaren arabera, maila honetan kokatu dugu:

**GORA BIDEAN**



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

## **5.- ERABILERA PLANAREN ERAGINPEKO LANGILEAK**

Derrigortasun data eta dagokien hizkuntz eskakizuna ala bat gutxiago egiaztatuta duten lanpostuetako langile guztiak izango dira bereziki plan honek eragingo dien langileak, baina gainerako langileak ere planaren parte izan daitezen saiakera egingo da, beraiei plana azalduz eta haien aldeko jarrera sustatuz, bereziki, langile horiek udalak euskara funtzionatzea eragiten duten kasuetan (**Ikus 2. eranskina. Lanpostuen zerrenda**).

Irurako Udalean 11 lanpostu daude, eta guztiek dituzte hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak ezarrita. Langile guztiek dituzte lanpostuari ezarritako hizkuntz eskakizunak egiaztatuta, batek izan ezik. Idazkariaren lanpostuak 4HE du ezarrita eta lanpostu hori duen langileak 2HE du egiaztatuta.

Iruran, Lanpostuen zerrendako langile guztiak eta zerrendatik at dauden langile kontratatutak sartuko dira erabilera planean.



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

## **6.- ERABILERA PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK**

86/1997 dekretuak dioenez, Euskara planaren helburu nagusia da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko ditu:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Horrez gain, Irura gune euskalduna da, eta gune euskaldunetarako zehaztutako helburuak betetzea ere badagokio. Eusko Jaurlaritzak, herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorren baitan, helburu espezifikoak jasotzen ditu gune euskaldunetarako, herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzeko.

Horri lotuta, honako helburu hauek zehazten ditu Jaurlaritzak:

- Euskara ohiko lan hizkuntza gisa garatzeko herri administrazioetako langileek behar besteko euskara gaitasuna izan dezaten neurri eraginkorrak hartzea.
- Administrazioen arteko harremanetan, gune euskaldunenetako udal langileekin izango dituzten lan harremanak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango direla ziurtatzea.
- Udalaz gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea.
- Hizkuntz paisaia oro har euskaraz izateko neurriak hartzea.
- Proiekzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, elkarte eta enpresei diru laguntzak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea.



Helburu horiek lortzeko, Irurako Udalak hizkuntz irizpideak eta helburuak zehaztu ditu V. plangintzaldirako.



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

## **7.- V. PLANGINTZALDIRAKO HELBURU OROKORRAK**

### **1. Udalaren irudi korporatiboa**

#### **a. Erabilera sustatzeko elementuak**

- Herritarrek argi izatea Udalarekin duten harremanetan euskaraz jardun ahal izango dutela.

#### **b. Webgunea eta sare sozialak**

##### **Webguneak**

- Udalaren mendeko webguneak hasiera-hasieratik euskaraz zabaltzea
- Euskarazko bertsioaren erabiltzaileak webgunearen eduki guztiak euskaraz bistaratzea.
- Internet bidez lor daitezkeen idatziek eta tramite telematikoek herritarrentzako agirien hizkuntz irizpide berberak betetzea
- Beste webguneetarako esteken bidez euskarazko bertsioak irekitzea

##### **Sare sozialak**

- Sare sozialen euskarazko bertsioak erabiltzea
- Profiletan euskara erabiltzea
- Mezuetan euskara erabiltzea
- Aukera dagoenean euskarazko estekak jartzea

#### **c. Hizkuntz paisaia**

##### **Udal instalazioetako hizkuntz paisaia**

- Udal instalazioetako hizkuntz paisaian euskara erabiltzea (errotuluak, oharrak, seinaleak...), piktogramak lehenetsiz.



## **Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

- Udalaren irudi korporatiboari lotuta, euskara erabiltzea
- Papeleriako elementuetan euskara erabiltzea (gutun azalak, orriak...)
- Zigiluak euskaraz egotea, legeak ezinbestean arautzen duenari kalterik egin gabe
- Ageriko elementuetako informazio guztian euskara erabiltzea (horma irudiak, hormetako egutegiak, informazio mahaiak...).

## **Udalerriko hizkuntz paisaia**

- Udalaren eskumenekoak diren oharretan, seinaleetan eta gainerakoetan euskara erabiltzea.
- Udalaren eta beste eragile baten eskumenekoak diren oharretan, seinaleetan eta gainerakoetan euskara erabil dezaten bermatzea.

### **d. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak**

## **Iragarki ofizialak**

- Ele biz argitaratu behar diren iragarkietan Udalak euskaraz sortzea eta itzulpenik bere gain ez hartzea, ahal duen kasu guztietan.

## **Iragarkiak**

- Iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan euskara erabiltzea, eta, kasu guztietan, herritar guztien hizkuntz eskubideak errespetatzea.

### **e. Argitalpenak**

- Argitalpen orotan euskaraz erabiltzea, euskara argi, ulerterraz eta egokiaz.

### **f. Adierazpenak**

- Udalaren izenean hitz egin behar dutenek euskaraz hitz egitea; betiere, beste hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntza eskubideak errespetatuta.





Udalaren izenean hitz egin behar dutenek nahikoa hizkuntz gaitasun edukitzea euskaraz jarduteko.

## 2. Udalaren barne harremanak

### a. Ahozko barne harremanak

#### i. Udal langileak eta udal ordezkariak

- Lantokiko hizkuntza euskara izatea
- Udal langileen edo/eta udal ordezkarien arteko ahozko harreman guztiak euskaraz bideratzea, bai telefono bidezkoak, bai lan bileretakoak, bai bestelakoak (pasilloan, kafea hartzean...).

### b. Idatzizko barne harremanak

- Barne harremanetako idatzi oro euskaraz bideratzea, baldin eta barrurako den agiriren batek salbuetsita dagoen langileren bati eragiten ez badio.

## 3. Udalaren kanpo harremanak

### a. Ahozko kanpo harremanak

#### i. Herritarrekin

##### 1. Lehenengo hitza

- Aurrez aurrekoan lehenengo hitza euskaraz izatea

##### 2. Telefono bidezko harrerak

- Telefonoz lehenengo hitza euskaraz izatea

##### 3. Bilerak

- Oro har, bileretan eta jendaurreko ahozko jardueretan hizkuntza nagusia euskara izatea. Ahal den kasuetan, euskarazko eta gaztelaniazko bilerak bereiz egingo dira. Bilera guztietan, herritarren hizkuntz eskubideak bermatuko ditu Udalak.

#### **4. Jendaurreko ekitaldiak**

- Jendaurreko ekitaldietan euskara erabiltzea
- Ikastaro, hitzaldi eta antzeko kasuetan, ekintzak haurrentzat edo/eta nerabeentzat badira, euskaraz izatea, eta helduentzat badira, bileretako hizkuntz irizpide berberak aplikatzea.

#### **5. Hedabideen aurreko agerraldiak**

- Udalaren izenean hitz egin behar dutenek euskaraz hitz egitea

Udalaren izenean hitz egin behar dutenek nahikoa hizkuntz gaitasun edukitzea euskaraz jarduteko.

##### **ii. Erakunde publikoekin**

- Telefono bidezko harremanetan, telefonoaren beste aldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatzea.
- Bileretan eta aurrez aurrekoetan, kasuan kasuko eskaerak bideratzea erakunde publikoetako solaskideak euskaldunak izan daitezen (Ertzaintza, Osakidetza, GFA, Jaurlaritza...).

##### **iii. Eragileekin**

- Telefono bidezko harremanetan, telefonoaren beste aldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait ba ote dagoen eskatzea.
- Bileretan eta aurrez aurrekoetan, kasuan kasuko eskaerak bideratzea solaskideak euskaldunak izan daitezen (elkartek, prentsa...).

#### **b. Idatzizko kanpo harremanak**

##### **i. Herritarrekin**

##### **1. Hartzaile jakinik gabekoak/Orokorrak**

- Bandoetan euskara erabiltzea

- Zabalkunde handiko gainerako elementuetan bandoekin bezala jokatzeari (gutunak, oharra, deialdiak...).
- Inprimakiei dagokienez, herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzeko, prozedura honi jarraitzea: herritarrei euskarazko bertsioa eskaintzea, eta, gaztelaniazkoa eskatzen badu, elebitakoa eskaintzea.

Hizkuntz diskriminaziorik egiteko aukera dagoenean (liburutegiko edo kiroldegiko bazkideak) harremanak euskaraz edo ele biz bideratzea, herritarraren hautua errespetatuz (euskaldunari euskaraz eta erdaldunari ele biz).

## **2. Hartzaile jakinentzako idatziak/Pertsonalizatuak**

- Herritarrak euskaraz egindako eskaera bati erantzuteko, Udalak euskara erabiltzea.

### **ii. Erakunde publikoekin**

#### **1. HEHko tokiko erakundeak**

- Hego Euskal Herriko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin, behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Hartara, haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara erabiliko da beti, eta beraiengandik gutxienez euskaraz jasotzea onartzeko jarraibidea erabiliko da, egun indarrean dagoen araudiari jarraiki.

#### **2. HEHko bestelako erakundeak**

- Hego Euskal Herriko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin, behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea (Adibidez, Jaurlaritzarekin edo Aldundiarekin). HEHko tokiko erakundeekin bezala jokatu du Udalak.

#### **3. HEHtik kanpoko erakundeak**

- EAEko lurralde esparruan kokatutako Estatuaren eta honen menpeko administrazioetarako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiltzea beti, 10/1982 legeari kalterik egin gabe.

- Administrazio horiengandik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, kasuan kasuko lanketak abian jartzea, idatziak euskaraz ere bidal ditzen.

### iii. **Eragileekin**

- Eragileentzako agirien kasuan (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...) euskara erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta 10/1982 oinarrizko legeari kalterik egin gabe.
- Pentsarekiko harremanetan idatzizko informazioa euskaraz bideratzea, eta Udalak euskaratik gaztelaniarako itzulpenak egin behar ez izatea.

### c. **Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak**

- Udalak UEMAREN irizpidea bere horretan aplikatzea.

### d. **Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak**

- Diru laguntzen tramitazioa euskaraz egitea bultzatzea
- Diruz lagundutako ekintzetan Udalak sustatzea euskara erabiltzea eta euskara kalitatezkoa izatea: ekintzaren propaganda euskaraz egitea, hizlarien hizkuntz kalitatea zaintzea...
- Herritarrei ez jartzea inolako mugarik euskaraz jarduteagatik, eta antolatzaileak arduratzea parte hartzaileek elkar ulertuko dutela.

### e. **Udal baimenak**

## **Hirigintza**

- Udalak herritar arruntei edo jardunbide honetako enpresei hirigintzako baimenen bat eman behar dienean, ageriko hizkuntza erabileran bederen – iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan– Udalaren hizkuntz irizpideak betetzeko gomendioa egitea.
- Merkataritza eta ostalaritza establezimenduen kasuan, Udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatzea eta laguntzen berri ematea; adibidez, laguntza teknikoa, ziurtagiriak eskuratzeko aukerak...



### **Udal instalazioak**

- Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Udalak euskararen erabilera bultzatzea.

### **Jaietako postuak**

- Postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiakin batera euskararen baldintzak ere bete ditzaten gomendatzea (prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz egotea eta girotzeko musika euskaraz izatea).

### **Bestelakoak**

- Bestelako baimenetan, hizkuntzari eragiten dioten neurrian, Udalak bi baldintza hauek bete ditzaten gomendatzea:
  - a. Jendurrean jartzen diren errotuluek, oharrek, seinaleek eta abarrek Udalaren hizkuntza irizpideak betetzea.
  - b. Herritarren hizkuntz eskubideak ez urratzea.

## **4. Udal baliabideak**

### **a. Giza baliabideak**

#### **i. Hizkuntz gaitasuna**

##### **1. Udal langileak**

- Lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna edo lanpostuaz gaindiko hizkuntza eskakizuna lortzeko, Udalak laguntza eskaintzea; betiere, legeak ezartzen duena betez.
- Udal langileek hizkuntz prestakuntzarako saioak jasotzea, dela saio presentzialetan, dela *on line*.



## 2. Udal ordezkariak

- Udal zinegotziek hizkuntz prestakuntzarako saioak jasotzea, dela saio presentzialetan, dela *on-line*.

### ii. Prestakuntza orokorra

- Prestakuntza ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz iristean, euskarazkoa hautatzea.
- Euskaraz ez diren ikastaroetara joateko, Udalak modu formalean eskaera egitea aurrerantzean ikastaroa euskaraz eskaini dezaten.

### b. Baliabide teknikoak

#### i. Tresna edo aplikazio informatikoak

##### 1. Aplikazio orokorrak

- Baliabide informatikoak euskaraz egotea.

##### 2. Berariazko aplikazioak

- Udalak sortuak edo erosiak diren aplikazioetan euskaraz lan egiteko aukera ematea, eta bertatik ateratzen diren agiriak euskaraz atera ahal izatea.
- Beste erakunde publiko batek aplikazio informatiko berri bat Udalaren esku jartzen badu, Udalak euskaraz dagoela ziurtatzea, eta, euskaraz erabiltzeko aukerarik ez badago, Udalaren Erabilera Planaren ardura duen taldeari jakinaraztea, aplikazioa euskaraz ere jar dezaten eskatzeko.

### ii. Intraneta

- Udalak bermatzea Intraneta euskaraz erabili ahal izango dela

### iii. Telefoniako erantzungailuak eta beste

- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoz... emandakoak) euskara erabiltzea, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.



#### c. Itzulpen baliabideak

- Legeak agindutakoari jarraiki, herritarrei nahiz beste administrazio batzuei ele biz bidali beharreko dokumentazioa euskaratik gaztelaniara itzultzea.
- Udal langileak arduratzea itzulpena egiteaz agiri labur (orri 1) edo errepikakorra denean eta itzulpen zerbitzura jotzea itzulpen luzeagoetan.

#### d. Espediente ereduak

- Udalaren espediente eta dokumentu ereduak euskaraz egotea.
- Udalak espedienteren bat ez badauka, beste erakunde batekin harremanetan jartzea eta euskarazkoa eskatzea.

Alorrez alorreko helburuez gain, Udala arduratuko da Udalaren izenean ateratzen diren idazki guztietan erabiltzen den euskara zuzena, egokia eta ulertteraza izateaz.

Udalak bere gain hartuko du udal langile berriei eta kontratatutako enpresei irizpide hauek jakinarazteko ardura, irizpideok beren zereginetan inplementa ditzaten. Horretarako, Udalak UEMAren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango du.



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

## **8.- HELBURUEI BEGIRAKO NEURRIAK BETETZEKO AZPIEGITURA**

Txosten honetan zehaztutako hizkuntz irizpideen betetze maila neurtzeko eta dagozkion helburuak betetzen direla bermatzeko, Irurako Udalak Erabilera Planaren Jarraipen batzordea sortuko du.

Erabilera Planaren Jarraipen batzordea kide hauek osatuko dute:

- Arduradun politikoek: garrantzi handia izango du UEMAko ordezkariak edo euskara zinegotziak parte hartzea.
- Udal langileek: garrantzi handia izango du zerbitziburuek parte hartzea. Langileak euren zereginekin lotutako gaiak aztertutakoan hartuko dute parte batzordean.
- Udaleko euskara zerbitzuko langileak
- UEMAko hizkuntz normalizatzaileak

Horrenbestez, zeregin hauek bideratuko ditu Jarraipen batzordeak:

- Talde eragilea izango da, eta urtez urteko kudeaketa planak diseinatu eta garatuko ditu, sail bakoitzari helburu zehatzak jarrita.
- Gutxienez, lau hilean behin elkartuko da, eta hurrengo aldirako zereginak zehaztuko ditu bilera bakoitzean. Urte bukaeran, kudeaketa planak baloratuko ditu.
- Ardurak banatuko ditu, kudeaketa planeko helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzeko.
- Konpromiso/neurri bakoitza betetzeko edo/eta betearazteko arduradunak eta epeak izendatuko ditu.
- Jarraipen batzorde batetik bestera banatutako lanak eta ardurak bete diren baloratu du, eta, behar izanez gero, egokitzapenak egingo ditu.
- Udalbatzari edo Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio zer neurri edo erabaki hartuko diren.





- Udaleko sailetako arduradunek planean zehaztutako helburuak betetzeko traben berri emango diote Jarraipen Batzordeko kideei.





# ERANSKINAK

**V. plangintzaldia  
2013-2017**



# **1. eranskina**

## **Diagnostikoaren aztergaiak**



## 1. UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA

Irurako Udaleko sailek kanpora begira ematen duen irudi korporatiboa aztertu dugu. Horretarako, hainbat elementu hartu ditugu kontuan.

1. Erabilera sustatzeko elementuak
2. Webgunea eta sare sozialak
3. Hizkuntz paisaia
  - a. Barnekoa
  - b. Kanpokoak
4. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak
5. Argitalpenak
6. Adierazpenak

Hona hemen elementu horien gaineko azalpenak:

### 1. Erabilera sustatzeko elementuak

Erabilera sustatzeko elementuei dagokienez, jendaurrean “Euskaraz hitz egin”, “Hemen euskaraz” edo antzeko mezuak dituzten euskarriak erabiltzen diren aztertu dugu (horma irudiak, mahai gaineko egutegiak...).

### 2. Webgunea eta sare sozialak

Webguneari dagokionez, webgunearen edukiak euskaraz dauden aztertu dugu, baita sare sozialetan Udalaren menpeko profilekin egiten den erabilera ere.

### **3. Hizkuntz paisaia**

#### **- Barnekoa**

Barneko hizkuntz paisaiari dagokionez, bi alor aztertu ditugu: alde batetik, papeleriarekin lotutako euskarrietako euskararen erabilera (gutun azalak, orriak...), eta, bestetik, bulegoetako jendaurreko elementuak (horma irudiak, errotuluak...).

#### **- Kanpoko**

Kanpoko hizkuntz paisaiari dagokionez, udalerriko errotuluak, seinaleak eta bestelako ageriko elementuak aztertu ditugu.

### **4. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak**

Iragarkiei, publizitateari eta kanpainei dagokienez, Udalaren irudiarekin lotutako edukietako euskararen erabilera aztertu dugu.

### **5. Argitalpenak**

Argitalpenei dagokienez, Udalak bere kabuz edo beste eragile batzuekin batera argitaratutako euskarrietako euskararen erabilera aztertu dugu (esku orriak, liburuxkak, ikus-entzunezko baliabideak...).

### **6. Adierazpenak**

Adierazpenei dagokienez, Udalak egindako adierazpen instituzionaletako edo udal ordezkari politikoek egindako adierazpenetako euskararen erabilera aztertu dugu, ahozkoa zein idatzizkoa.



## 2. UDALAREN BARNE HARREMANAK

Irurako Udaleko sailek barne harremanetan euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu. Horretarako, hainbat alor hartu ditugu kontuan:

1. Ahozko barne harremanak
  - a. Horizontalak
  - b. Bertikalak
2. Idatzizko barne harremanak

Hona hemen elementu horien gaineko azalpenak:

### 1. Ahozko barne harremanak

Ahozko harremanak aztertzerakoan kontuan hartu dira Udaleko barne harreman horizontalak zein bertikalak.

Harreman horizontalei dagokienez, udal langileek euren artean zein udal ordezkariak euren artean euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu.

Harreman bertikalei dagokienez, kontuan hartu dugu udal ordezkariak udal langileekin ahozkoan erabiltzen duten harreman hizkuntza, baita udal langileek udal ordezkariekin erabiltzen dutena ere.

### 2. Idatzizko barne harremanak

Idatzizko barne harremanak aztertzeke, barneko funtzionamenduan erabiltzen diren idazki motak aztertu dira: erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan eta ez ofizialetan igorritako komunikazioen hizkuntza, erabilera planaren eraginpeko langileek sortutako eta hedatutako komunikazioen hizkuntza, harreman formaletan sortutako eta hedatutako komunikazioen hizkuntza eta, azkenik, langileen harreman informaletako euskararen erabilera.

### 3. UDALAREN KANPO HARREMANAK

Kanpo harremanetan, Irurako Udaleko sailtako euskararen erabilera aztertu dugu, kanpoko eragileekiko harremanetan. Bi alor aztertu ditugu: ahozkoak eta idatzizkoak. Horrez gain, beste alor hauek ere aztertu ditugu: zerbitzu enpresak eta hornitzaileak, diruz lagundutako elkarte eta jarduerak eta udal baimenak.

Honela egituratu dugu informazioa:

#### 1. Ahozko kanpo harremanak

##### a. Herritarrekin

- Lehenengo hitza
- Telefono bidezko harrerak
- Bilerak
- Jendaurreko ekitaldiak
- Hedabideen aurreko agerraldiak

##### b. Erakunde publikoekin

- Telefonoz
- Aurrez aurrekoak (bilerak, aurkezpenak...)

##### c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)

- Telefonoz
- Aurrez aurrekoak (bilerak, aurkezpenak...)

#### 2. Idatzizko kanpo harremanak

##### a. Herritarrekin

- Hartzaile jakinik gabeko idatziak / Orokorrak

- Hartzaile jakinentzako idatziak / Pertsonalizatuak
  - b. Erakunde publikoekin
    - EHko tokiko erakundeak
    - EHko bestelako erakundeak
    - EHtik kanpoko erakundeak
  - c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)
3. Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak
  4. Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak
  5. Udal baimenak

Hona hemen elementu horien gaineko azalpenak:

### **1. Ahozko kanpo harremanak**

Ahozko kanpo harremanei dagokienez, solaskideen araberako sailkapena egin dugu. Lehenengo, herritarrekiko harremanak aztertu ditugu; gero, gainerako erakunde publikoekikoak; eta, azkenik, gainerako eragileekikoak (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...).

Bestetik, erakunde publikoekin eta bestelako eragileekin aurrez aurreko harremanak eta telefono bidezkoak zein hizkuntzatan izaten diren aztertu dugu.

#### **a. Herritarrekin**

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek herritarrekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu. Horretarako, hainbat egoera hartu ditugu kontuan: lehenengo hitza, telefono bidezko harrerak, bilerak, jendaurreko ekitaldiak eta hedabideen aurreko agerraldiak.

**b. Erakunde publikoekin**

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek gainerako erakunde publikoetako solaskideekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu, maiztasunaren arabera sailkatuta.

**c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)**

Ahozko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz udaleko ordezkari politikoek eragileetako solaskideekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu, maiztasunaren arabera sailkatuta.

**2. Idatzizko kanpo harremanak**

Idatzizko kanpo harremanei dagokienez, ahozko kanpo harremanetan bezala, herritarrekin, erakunde publikoekin eta eragileekin izan ohi diren idatzizko komunikazioak zein idazki motak zein hizkuntzatan izaten diren aztertu dugu, bai paperekoak bai telematikoak.

**a. Herritarrekin**

Idatzizko kanpo harremanen baitan, udal langileek nahiz Udaleko ordezkari politikoek herritarrekin euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu. Horretarako, hartzailearen arabera banaketa egin dugu: batetik, hartzaile jakinik gabeko idatziak (orokorrak) aztertu ditugu, eta, bestetik, hartzaile jakinentzako idatziak (pertsonalizatuak).

**b. Erakunde publikoekin**

Idatzizko kanpo harremanen baitan, Udalak erakunde publikoetatik jasotako agiriak eta erakunde publikoetara igorritako agiriak aztertu ditugu, euskara zenbat eta nola erabiltzen duten jakiteko. Erakundeak esparruaren arabera sailkatu ditugu: EHko tokiko erakundeak, EHko bestelako erakundeak eta EHTik kanpoko erakundeak.

**c. Eragileekin (alderdi politikoak, sindikatuak, elkarteak...)**

Idatzizko kanpo harremanen baitan, Udalak hainbat eragilerengandik jasotako agiriak eta eragile horiei igorritako agiriak aztertu ditugu, euskara zenbat eta nola erabiltzen duten jakiteko.



#### **d. Bestelakoekin**

Idatzizko kanpo harremanen baitan, aurreko puntuetatik at geratu diren bestelako talde, erakunde eta abarrak aztertu ditugu.

### **3. Zerbitzu enpresak eta hornitzaileak**

Udal zerbitzu enpresen eta hornitzaileen harremanak aztertzeke, lehenik, udal zerbitzu enpresak eta hornitzaileak hiru multzotan sailkatu ditugu. Sailkapen hori egin ondoren, Udalak eurekin eta eurak Udalarekin duten harreman hizkuntzari dagozkion datuak bildu dira.

### **4. Diruz lagundutako elkarteak eta jarduerak**

Udalak ematen dituen diru laguntzei dagokienez, bi alor aztertu ditugu: batetik, Udalak funtzionamendurako elkarte edo taldeei ematen dizkien diru laguntzak, eta, bestetik, talde edo elkarte horiek Udalaren diru laguntzaz eskaintzen dituzten ekintzekin lotutako hizkuntz erabilera (ekintzaren ahozko jarduna, propagandaren hizkuntza...).

### **5. Baimenak**

Baimenei dagokienez, udal baimenetan hizkuntz irizpiderik txertatzen den aztertu dugu. Baimenak hiru multzotan sailkatu ditugu: hirigintza baimenak (irekiera baimenak, obra baimenak, lehenengo erabilera baimenak...), udal instalazioak erabiltzeko baimenak, udalerriko espazio publikoa erabiltzeko baimenak eta jaietako postuak eta txosnak jartzeko baimenak.

#### 4. UDAL BALIABIDEAK

Irurako Udalaren sailen baliabideen azterketa egiteko, alor hauek hartu ditugu kontuan:

##### 1. Giza baliabideak

- a. Hizkuntz gaitasuna
  - Udal langileak
  - Udal ordezkariak
- b. Hizkuntz prestakuntza
- c. Prestakuntza orokorra

##### 2. Baliabide teknikoak

- a. Tresna edo aplikazio informatikoak
  - Aplikazio orokorrak
  - Berariazko aplikazioak
- b. Intraneta
- c. Telefonía
  - Telefono finkoetako erantzungailuak
  - Telefono mibileko erantzungailuak
- d. Bestelako gailuak (megafoniako mezuak, hari musikala, irratia...)

##### 3. Itzulpen baliabideak

##### 4. Espediente ereduak

Hona hemen elementu horien gaineko azalpenak:

## **1. Giza baliabideak**

Udalaren giza baliabideei dagokienez, udal langileak zein udal ordezkariak aztertu ditugu.

### **a. Hizkuntz gaitasuna**

Hizkuntz gaitasunari dagokionez, langileek zein ordezkari politikoeek euren jardunean nahikoa euskara maila duten aztertu dugu.

Udal ordezkariari dagokienez, Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die Udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hauteskudeetako zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak euskaldunak izateko.

### **b. Hizkuntz prestakuntza**

Hizkuntz prestakuntzari dagokionez, langile guztiek hizkuntz prestakuntzarako zein hobekuntzarako eskaintako dedikazioa aztertu dugu.

### **c. Prestakuntza orokorra**

Prestakuntzari dagokionez, orokorrerako adierazleak aztertu dira, bai eskaini diren ikastaroen gainekoak, bai jaso diren ikastaroen gainekoak.

## **2. Baliabide teknikoak**

Udalaren baliabide teknikoei dagokienez, honako hauek hartu ditugu kontuan: Udalaren tresna eta aplikazio informatikoak (oinarrikoak zein berariazkoak), intraneta, telefonia (finkoa zein mugikorra) eta bestelako gailuak.

### **a. Tresna edo aplikazio informatikoak**

Udalaren baliabide teknikoei dagokienez, honako hauek hartu ditugu kontuan: Udalaren tresna eta aplikazio informatikoak (oinarrikoak zein berariazkoak), intraneta, telefonia (finkoa zein mugikorra) eta bestelako gailuak.

### **Aplikazio orokorrak**

Tresna edo aplikazio informatikoetan, ordenagailu guztien oinarritzko elementuak aztertu ditugu: sistema operatiboa eta ofimatika.

**i. Berariazko aplikazioak**

Berariazko aplikazioetan, sailaren jardun jakin batzuetarako berariaz sortutako aplikazioak aztertu ditugu.

**ii. Intraneta**

Atal honetan, udal langileek intraneteen edo barne sare informatikoetan euskara zenbat eta nola erabiltzen duten aztertu dugu.

**iii. Telefonía**

Telefoniari dagokionez, alde zurretik grabatutako mezuak ze hizkuntzatan dauden aztertu dugu (erantzungailuetakoa, zentralitakoa...)

**1. Telefono finkoetako erantzungailuak**

Telefono finkoetako erantzungailuetako mezuak euskaraz dauden aztertu dugu.

**2. Telefono mobiletako erantzungailuak**

Telefono mobiletako erantzungailuetako mezuak euskaraz dauden aztertu dugu.

**iv. Bestelako gailuak (megafoniako mezuak, hari musikala, irratia...)**

Bestelako gailuetan, ikus-entzunezko edo entzunezko elementurik erabiltzen duten, eta erabiltzekotan, ze hizkuntzatan diren aztertu dugu.

**3. Itzulpen baliabideak**

Itzulpen baliabideei dagokienez, Udalaren itzulpen laburrak zein luzeak norik egiten dituen aztertu dugu, baita euskararen kalitatea zaintzeko neurriak hartzen den ere. Itzulpenak bitan sailkatu ditugu: itzulpen laburrak edo errazak eta itzulpen luzeak edo zailak.

**a. Itzulpen laburrak**

Itzulpen laburrak dira 1-... orrialdekoak, edo laburragoak izanik, hizkuntzaren aldetik zailtasunak dituztenak.





#### **b. Itzulpen luzeak**

Itzulpen luzeak dira 1-... orrialdekoak, edo laburragoak izanik, hizkuntzaren aldetik zailtasunak dituztenak.

#### **4. Espediente ereduak**

Espediente edo dokumentu erduei dagokienez, gehien erabiltzen diren ereduak edo espedienteak euskaraz dauden aztertu dugu.



## **3. eranskina**

### **UEMAren irizpideak**



### 1.- IRURAKO UDALEKO LANPOSTU ETA LANGILEEN HIZKUNTZ EGOERA

Kontuan hartu beharreko beste gauzetariko bat da Irurako Udalak hiru administrazio atal dituela:

1.- Idazkaritza orokorra

2.- Obra eta Zerbitzuak

3.- Kultura

Hauek dira egoera zein den zehazteko erabili ditugun laburdurak:

Lanpostuak titularra daukanean		Lanpostuak ez daukanean titularrik	
LT-1	Titularra dago lanean.	LH-1	Udaleko beste lanpostu bateko langile titularra ari da lanpostu horretan lanean
LT-2	Udaleko beste langile titular bat ari da lanpostu horretan lanean	LH-2	Aldi baterako langilea ari da lanpostu horretan lanean
LT-3	Aldi baterako langile bat ari da lanpostu horretan lanean	LH-3	Enpresa bateko langilea ari da lanpostu horretan lanean
LT-4	Ez dago inor lanpostu horretan lanean	LH-4	Ez dago inor lanpostu horretan lanean



**Irurako udala**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**

Idazkaritza Orokorra						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Orokorra	Idazkari kontu hartzailea	4HE	2001-12-31	LT-1	2HE	
Jendaurrekoa	Gizarte langilea	3HE	2004-01-01	LH-2		3HE
Orokorra	Administraria	3HE	1993-12-31	LT-1	3HE	
Orokorra	Administrari laguntzailea	3HE	2000-05-31	LT-1	3HE	
Jendaurrekoa	Administraria	3HE	2006-01-01	LH-2		3HE
Obra eta Zerbitzuak						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Jendaurrekoa	Arkitekto teknikoa	3HE	1997-11-26	LH-2		3HE
Gizarte izaera	Zerbitzu orokorretako arduraduna	2HE	1993-12-31	LT-1	2HE	
Gizarte izaera	Ordenantza jakinarazlea	1HE	1992-12-31	LH-2		1HE
Berezia	Eraikinetako garbitzailea	1HE	1992-12-31	LH-2		1HE
Gizarte izaera	Ofiziala	2HE	2000-05-31	LT-1	2HE	
Gizarte izaera	Zerbitzu arduraduna	2HE	2006-01-01	LH-2		2HE
Idazkaritza Orokorra						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Lanpostuaren egoera	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Orokorra	Gizarte kultur dinamizatzailea eta itzultzailea	4TG	*		4TG	
Orokorra	Euskara teknikaria	4TG	*		4TG	
Jendaurrekoa	Kultur laguntzailea	3HE	2007-12-31	LH-2		3HE

\*Teknikari gaitua denez, lanpostuari dagozkion zeregin eta eginkizunen muina euskara bera da, eta, horren ondorioz, ez DDrik ezarrita eduki beharrik.

**Irurako Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana**  
V. plangintzaldia (2013-2017)